



Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia

## Saila: HIRIGINTZA

Espediente zk.: 17-3399

**GANeko KIROL-INSTALAZIOAK ERREFORMATZEKO OBRETARAKO  
LAGUNTZA TEKNIKOA, OBRA-PROIEKTUAREN IDAZKETA, OBRA-  
ZUZENDARITZA ETA GAINERAKO PROIEKTU ETA LAN TEKNIKOAK  
KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA.**

### LEHENENGOA.- AGIRI HONEN XEDEA.

Agiri honen xedea da zerbitzu hauek egiteko kontratazioa zuzenduko duten preskripzio tekniko bereziak zehaztea:

*“Ganeko kirol-instalazioak erreformatzeko obrak egiteko egikaritze-proiektuaren idazketa, obra-zuzendaritza, kalitatea kontrolatzeko proiektua, segurtasunari eta osasunari buruzko azterlana eta zuzeneko zerikusia duten proiektuak eta lanak”.*

Proiektuaren xedea Ganeko kirol-instalazioetan egin beharreko jarduketa hauen diseinua eta definizio tekniko osoa dira; jarraian azalduko diren faseetan egongo dira egituratuta:

I. fasea	Berdegunak handitzea, oro har eta bereziki igerileku handiaren inguruan.	<ul style="list-style-type: none"><li>- Igerileku txikia igerileku handian integratzea.</li><li>- Txirristak igerileku txikian.</li><li>- Urari lotutako jolas-gune bat sortzea, ur-jolasak etab. dituen.</li><li>- Malda aprobetxatzeko aukera aintzat hartu beharko da, baina ur-jolasetarako behar den eguzkialdia beti izango da kontuan.</li><li>- Gune maldatsua eta haritzen gunea egokitzea, itzalpean atsedenerako eremu bat edo piknikgune bat sortuz eta aldagela berrietako estalki irekigarrietara heltzeko aukera emanaz.</li><li>- Zerbitzu-instalazioak igerilekuetara eramatea eta ekipamendu berrietarako behar direnak egitea ekipamenduaren lehentasun txikiko guneetan. Biltegiak, instalazio-gelak, etab.</li><li>- Sarbideak kontrolatzeko aplikatu daitezkeen sistemak aztertzea, erabilera-malgutasunari buruzko beharrekin eta udako denboraldiaren eta negukoaren arteko diferentziekin bat datozenak.</li><li>- Edariak saltzeko makinaren bat duen piknikgune baterako eta hondakinak kudeatzeko gune baterako kokapen egokia aztertzea. Iturria, aska, etab. ipintzeko aukera.</li><li>- Bizikletak garbitzeko gunea, batez ere BTB edo horri lotutako kirolak egiteko.</li></ul>
----------	--	---



**Amorebieta-Etxanoko Udala**  
**Bizkaia**

II. fasea	Bi padel-pista gehitzea eta dauden tenis-pistak hobetzea	<ul style="list-style-type: none"><li>- Bi padel-pista estali egitea orain pilotalekua dagoen espazioan.</li><li>- Tenis-pistak, zoladura, ekipamenduak, harmailak, etab. berregitea.</li><li>- Berrurbanizazio orokorra. Eskailerak eta konexio irisgarria erabiltzen diren kota guztietarako.</li></ul>
-----------	--	---

Agiri teknikoa halako moduan egituratu beharko da non fase bakoitza aldi berean ez gauzatzeko aukera dagoen.



Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia

**BIGARRENA.- OBREN EGIKARITZE-PROIEKTUAREN IDAZKETA, OBRA-ZUZENDARITZA, KALITATEA KONTROLATZEKO PROGRAMA, SEGURTASUNARI ETA OSASUNARI BURUZKO AZTERLANA, HONDAKINAK KUDEATZEKO PLANA ETA OBREKIN ZUZENEKO ZERIKUSIA DUTEN BESTELAKO PROIEKTU ETA LAN TEKNIKO OSAGARRIAK EGITEA.**

**I. Baldintza orokorrak.**

**A)** Proiektuak agiri hauek izango ditu: memoria, planoak, behar diren instalazioen berariazko proiektuak, baldintzen agiria eta aurrekontua. Era berean, proiektua honako hauekin osatuko da: segurtasunari eta osasunari buruzko azterlana, kalitatea kontrolatzeko programa eta hondakinak kudeatzeko plana. Obra amaitutakoan, obra-amaierako berariazko agiria aurkeztuko da. Esku-hartzearen neurria dela-eta aipaturiko agiriak gehitu behar ez badira, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera, horri buruzko justifikazioa gaineratu beharko da.

Agiri bakoitzaren edukiak, gutxienez, COAVNen urbanizazio- eta eraikuntza-proiektuen baldintzetan aipaturiko alderdiak garatuko ditu, baita "Obra-zuzendaritza eta obra-amaierako dokumentazioa", "Segurtasunari eta osasunari buruzko azterlanaren dokumentazioa" eta "Kalitatea kontrolatzeko programaren dokumentazioa" izeneko eranskinetakoak ere, proiektuaren ezaugarrien ondorioz beharrezkoa bada. Halaber, agiriari hondakinak kudeatzeko plan baten proiektua erantsi beharko zaio.

Nolanahi ere, agiriak EKTren I. eranskinean ezarritako edukia izango du.

**B)** Adjudikaziodunak egikarituko ditu proiektua idazteko lanak, Amorebieta-Etxanoko Udalaren jarraibideak betez. Hala, udalarekin bilduko da aldizka, eta, gutxienez, hiru bilera izango dituzte. Gainera, udalari lanen martxari buruz eskatzen duen informazio guztia emango dio une oro.

**C)** Adjudikaziodunak landa-lan guztiak egingo ditu, besteak beste, azterlan geoteknikoak, azterlan akustikoak, azterlan hidraulikoak, jasotze topografikoak, etab., bai sestraren gainean bai azpian, eta hiri-instalazio guztien oraingo egoera jasoko da. Era berean, proiektuak behar bezala idazteko beharrezkoa den beste edozein lan ere egingo du.



**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

**D)** Halaber, adjudikaziodunak kabineteko lan guztiak egingo ditu: idatzitako agiri guztien kalkulua, mekanografia, delineazioa, azaleztatzea, etab., baita kopia ere.

**E)** Adjudikaziodunak bere gain hartuko ditu obrek irauten duten bitartean jarduketa-eremuaren barruan egiten diren proiektu-aldaketa guztiak, baita eremutik kanpo dauden hiri-zerbitzuekiko konexioak ere. Baztertuta geratzen dira agindutako proiektua hasieran onetsi ostean udalaren irizpidea aldatzeagatik edo eremua handitzearen ondorioz egiten diren proiektu-aldaketak.

**F)** Adjudikaziodunak egikaritze-proiektuaren bi kopia oso eta obra-amaierako dokumentazioaren bi kopia oso emango dizkio udalari. Ale bakoitzak dokumentazio guztia hartu beharko du barne, bai paperezko formatuan bai formatu digitalean. Kartografiak ETRS89 sistemaren arabera izan beharko du eta Amorebieta-Etxanoko Udalak obra-amaieran emateko ezarri dituen baldintzekin bat etorriko da. Proiektuaren euskarri informatikoko kopiak: memorienak, \*.doc formatuan; planoenak, \*.dwg eta \*.dgn formatuetan. Aurrekontuarenak, truke-formatu estandarrean (FIE-bc3) eta Excel formatuan. Halaber, proiektu osoa .pdf formatuan aurkeztuko da.

## **II. Baldintza bereziak.**

**A)** Proiektua adjudikaziodunak idatziko du, zuzenean edo zeharka aplikagarria izan daitekeen guztia kontuan hartuta.

Baldintza tekniko partikularren agiriko **dokumentazio teknikoa**, idazten duen taldeak egiaztatu eta zabaldu ahal duen arren, agiri hauek osatuko dute:

- Jarduketa-eremua jasotzen duen dokumentazio grafikoa.
- Udal-bulego teknikoak duen dokumentazioa, non ingurunean dauden sareak biltzen diren.
- Aldagelen proiektua, orain egikaritzen ari baita.
- Saneamendu-sistema berriaren inguruko aurreikuspenari buruzko dokumentazioa. Orain, proiektua idazteko fasean dago.



**Amorebieta-Etxanoko Udala**  
**Bizkaia**

Bai kartografia bai sareen planoak orientagarritzat jo beharko dira; hortaz, proiektua idazteko eta gero obra egiteko berrikusi beharko dira eta, hala badagokio, baita zuzendu ere.



**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

## **ERANSKINAK**

**PROIEKTUAREN DOKUMENTAZIOA.**

**OBRA-ZUZENDARITZA ETA OBRA-AMAIERAKO DOKUMENTAZIOA.**

**SEGURTASUNARI ETA OSASUNARI BURUZKO AZTERLANAREN  
DOKUMENTAZIOA.**

**KALITATEA KONTROLATZEKO PROGRAMAREN DOKUMENTAZIOA.**

**EEH-EN KUDEAKETARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA ETA LANAK.**



**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

## **PROIEKTUA**

Proiektuak EKT onartzen duen dekretuaren I. eranskinen I. atalean ezarritakoa jaso beharko du, baina beren ezaugarriengatik eta barne hartzen dituzten elementuengatik bidezkoak ez diren alderdiak ez dira nahitaezkoak izango.

Bestalde, proiektuak honako hauek aztertu beharko ditu aurreko lanen fase batean:

- Dagoen dokumentazioa biltzea.
- Jasotze topografikoa edo dagoena handitzea. Jasotzeak eremuan dauden sareak hartu beharko ditu barne.
- Azterlan geoteknikoak, beharrezkoak badira.
- Landa-datuak hartzea eta argazki-erreportajea egitea.
- Ukitutako zerbitzuak biltzea. Ukitutako enpresa guztiei berariazko kontsulta egin beharko zaie. Kontsultan, sareen oraingo egoerari buruzko eta aldatzeko aurreikuspenei buruzko informazioa eskatu beharko da.
- Udalaren beharrak aztertzea.
- Beste administrazio batzuekin (BFA, Uren Lurralde Zerbitzua...) kudeaketak egitea.
- Konponbideak aztertzea.

Proiektuak gutxieneko alderdi hauek jaso beharko ditu bere dokumentazioan:

- Lur-mugimendua.
- Egiturak (lurrei eusteko sistemak, proposatutako instalazioetako egitura-elementuak, estalkiak, etab.).



**Amorebieta-Etxanoko Udala**  
**Bizkaia**

- Esku-hartze ingurunearen gaineko espazioetako zoladuraren eraginak (berdeguneak, kirol-guneak, oinezkoentzako pasabideak, etab.).
- Behar bada, proposaturiko hiri-altzariak edo ukitutakoak.
- Dauden instalazioen egokitzapena (igerilekua...).
- Ukituak izan daitezkeen edateko, ureztatzeko eta sute-ahoetarako ura banatzeko sareak.
- Aurreikusi beharreko edo ukitutako euri-urak husteko estolderia-sarea eta ukituak izan daitezkeen hondakin-uren gaineko jarduketak.
- Ukituak izan daitezkeen energia elektrikoko, gaseko eta telekomunikazioen banaketa.
- Argiteria publikoari buruzko aurreikuspenak.
- Ukitua izan daitekeen espazio libreetako sistemako lorezaintza.
- Indarreko legeriaren arabeko irisgarritasuna.
- Seinaleak.
- Elementu guztien akaberak.
- Eraikinetako instalazioak.
- Itxiturako eta sarbideak kontrolatzeko instalazioak.

Aurrekontuak honako eskema garatuko du:

1. Neurketak.

2. Prezioak banatuta.

3. Aurrekontua xehatutako neurketekin; hala, neurketa-irizpidea definituko da partida bakoitzean.





**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

4. Aurrekontu orokorra eta laburpena kapituluka.

Proiektuaren obra-unitateen neurketa guztiak jasoko dira.

Banatutako prezioek dagozkien eremuetan obra-unitate guztiak hartuko dituzte barne. Obra-unitate horien definizioa ahalik eta laburrena izango da, argitasunik galdu gabe. Hala, prezio bakar gisa zenbatuko da misio funtzional homogeen eta osoa duten azpimultzo edo elementuei dagozkien batura, eta horiek osatu behar dituzten elementuen zehaztapenen izendapenen edo definizioaren eranskin gisa jasoko dira.

Nahitaz adieraziko dira egikaritu beharreko partiden neurketa-irizpideak.

Kontratu-aurrekontua (BEZa barne) eskuratzea honela ezarriko da:

- A. EGIKARITZE MATERIALEKO AURREKONTUA.
- B. GASTU OROKORRAK (% 13 S/A).
- C. MOZKIN INDUSTRIALA (% 6 S/A).
- D. BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA (% 21 S/(A+B+C)).
- E. KONTRATU-AURREKONTUA (A+B+C+D).

Kontratista-sailkapenari dagokionez, adieraziko da hori beharrezkoa den ala ez aipaturiko obren adjudikaziodun izan ahal izateko.

Azkenik, obrak egiteko aurreikusi den epearen berri emango da.



**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

## **OBRA-ZUZENDARITZA ETA OBRA-AMAIERAKO DOKUMENTAZIOA**

Obra-zuzendaritzak, gutxienez, honako lan hauek garatuko ditu:

- Obren egikaritzearen, kalitatearen, epeen eta kostuen jarraipena eta kontrola egitea. Obrarako bisiten aktak idatziko dira.
- Neurketen eta aurrekontuen jarraipena egitea, baita obra-ziurtapenak kontrolatu eta onestea ere.
- Obren egikaritzea garatzeak eragindako beharrezko aldaketak aztertzea.
- Obren amaiera onestea udalak hartzeko.
- Kontratastarekin obrak likidatzea.
- Ingurumena kontrolatzeko plana betetzen dela kontrolatzea eta horren jarraipena egitea.
- Hondakinak ondo kudeatzen diren egiaztatzea.

Obra-amaierako dokumentazioak dokumentu hauek hartuko ditu barne:

- Obra-amaierako ziurtagiria.
- Egindako obren amaierako ziurtapena.
- Ingurumena kontrolatzeko plana betetzeari buruzko txostena, egonez gero.
- Hondakinen kudeaketari buruzko amaierako txostena.



**Amorebieta-Etxanoko Udala**  
**Bizkaia**

- Obrarako bisiten akten bilduma.
- Jarduketa-eremuaren amaierako egoeraren berriazko plano topografikoa, sestra gainean eta azpian, behin obrak egikarituta eta udal-kartografian jasota. Dokumentazioa paperean eta formatu digitalean (\*.dwg eta \*.dgn) aurkeztu beharko da, udal-bulego teknikoak erabilitako marrazketa-egiturarekin (erreferentziak, geruzak, mailak, blokeak, lerro-motak, testuak...) bat etorriz. Horrek guztiak ETRS89 sistemaren arabeko geoerreferentzia izan beharko du.
- Hiri-instalazioen planoak, dagozkien udal-planoetan txertatuak, zehaztaperen egokiarekin (hoditerien diametroak, kutxatilenak...). Saneamendu- eta euri-instalazioetan, kutxatila bakoitzean definituko da sakoneraren eta estalkiaren kota. Dokumentazioa paperean eta formatu digitalean (\*.dwg eta \*.dgn) aurkeztu beharko da, udal-bulego teknikoak erabilitako marrazketa-egiturarekin (erreferentziak, geruzak, mailak, blokeak, lerro-motak, testuak...) bat etorriz. Horrek guztiak ETRS89 sistemaren arabeko geoerreferentzia izan beharko du.



**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

## **SEGURTASUNARI ETA OSASUNARI BURUZKO AZTERLANA ETA SEGURTASUN- ETA OSASUN-KOORDINAZIOA**

Segurtasunari eta osasunari buruzko azterlanak edo, hala badagokio, segurtasunari eta osasunari buruzko oinarritzko azterlanak, obra egiteak dakartzan arriskueterako zein konponketa-, kontserbazio- eta mantentze-lanen ondoriozkoetarako egokiak diren prebentziozko neurriak jasoko ditu. Dokumentu hauek bilduko ditu:

### **1. MEMORIA.**

Memoriak honako hauek hartuko ditu barne: obraren datuak, horren egikaritzean oinarritutako segurtasun-beharrak eta justifikazioa eta obra-proiektuan jasotako premiak eraikuntza-prozesuan gauzatzearen ondoriozko arriskuen analisia. Bi osagai izango ditu: batetik, informazio-memoria, obrari eta aurrekariari buruzko datuak (kokapena, aurrekontua, sarbideak, obra-mota, oinplano-kopurua, eraikuntza-sistemak, akaberak, instalazioak, etab.) bilduko dituen, segurtasuna mantentzeari eta kontserbazioari aplikatzeko modua barne; bestetik, prozeduren eta erabiliko diren ekipamendu teknikoaren azalpen-memoria, gerta daitezkeen lanbide-istripu eta -gaixotasunen arriskuen zerrenda jasoko duena. Era berean, obrako lantokiak eduki behar dituen osasun-zerbitzuak eta zerbitzu komunak deskribatuko dira, baita behin-behineko instalazio elektrikoak, hormigoia ekoiztekoak, etab. ere.

### **2. BALDINTZEN AGIRIAK.**

Baldintzen agiriak aplikatu beharreko legezko araudia eta neurketak egiteko eta segurtasun-elementuak ebaluatzeko arauak bilduko ditu. Halaber, obrako segurtasunaren antolamendu orokorra eta tartean dauden alderdien betebeharrak eta eskubideak hartuko ditu barne. Bi osagai izango ditu: batetik, baldintza orokorren agiria, non kasuan kasuko obraren berezko zehaztapen teknikoei aplikatu beharreko



**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

legeak eta arauak azalduko diren; bestetik, baldintza partikularren agiria, non makinan, tresnen, prebentziozko sistemen eta ekipamenduen ezaugarriei, erabilerari eta kontserbazioari dagokienez bete behar diren aginduak jasoko diren, baita behin-behineko elektrizitate-instalazioak, sarbideak, higiene-zerbitzuak, jantokiak, etab. ere.

### 3. PLANOAK.

Planoak segurtasunari eta osasunari buruzko azterlanean dira bereziki beharrezkoak. Horien bidez, memorian adierazitako neurketak grafikoki jasoko dira, zehaztutako prebentziozko neurriak hobeto definitu eta ulertzeko behar diren grafikoak eta eskemak garatuko dira eta beharrezko zehaztapen teknikoak adieraziko dira.

Plano orokorrak (instalazioen banaketa-sarea, makinetarako eta langileentzako sarbideak, hesiak eta seinaleak, obraren kokapena inguruko kaleei dagokienez, etab.) eta obra-planoak bilduko dira, non honako hauek adieraziko diren: babes kolektiboak, langileentzako eta makinetarako sarbideak, baliabide osagarrien planoak, aldarnioak, eskailerak, plataformak, barandak, zuloetako eta eskaileretako seinaleak, xehetasunak, etab., zerbitzu publikoen kokapena, ingurunearen egoera eta ezaugarriak, jasotzeko makinan kokapena eta lekualdatzeko makinan ibilbidea.

### 4. NEURKETAK ETA AURREKONTUA.

Agiri hau segurtasunari eta osasunari buruzko azterlanean da berariaz beharrezkoa eta segurtasun-elementuen (babes kolektiboak, banakakoak, ongizate-instalazioak, lehen laguntzako seinaleak) neurketa eta balioespena jasotzen ditu soilik, obra-unitate bat egikaritzeko behar diren segurtasun-baldintzak ahalbidetzen dituztenak baitira: horiek gabe posible da aurreikusitako lanak egitea, baina, jakina, babes-berme egokirik gabe. Aurrekontuak segurtasunari eta osasunari buruzko azterlana aplikatzeko eta egikaritzeko aurreikusi diren gastu guztiak zenbatuko ditu, bai guztizko baturari bai elementuen banakako balioespenari dagokienez, eta kalkulatzeko oinarri hartzen den prezio-taula aipatuko da. Aurreikusteko zailak diren elementu edo eragiketarako soilik jaso ahalko dira goren mugako partidak.



**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

Aleko prezioak aplikatzean, honako hauek hartuko dira kontuan: balioesten den elementuaren amortizazio-maila, segurtasun-elementua instalatzeko aurreikusi den zuzeneko zein zeharkako eskulana eta ondorengo desmuntaketa eta bilketa.

Aurrekontuan ez dira jasoko lanen egikaritze profesional zuzenak, indarrean dauden arauen eta oro har onartutako eta erakunde baimenduetatik etorritako irizpide teknikoaren arabekoak, eskatzen dituen kostuak.

**5. SEGURTASUN- ETA OSASUN-KOORDINAZIOA.**

Segurtasun- eta osasun-koordinazioko lanak ez dira lizitazio honen xede.



**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

## **KALITATEA KONTROLATZEKO PROGRAMA ETA JARRAIPENA**

Kalitatea kontrolatzeko programan, obrak egikaritu bitartean hartutako materialak teknikoki egokiak direla eta obran behar bezala, proiektuaren agiriekin bat etorriz, jartzen direla bermatzen duten saiakuntzak egiten direla kontrolatzen dituzten mekanismoak arautuko dira.

Kalitatea kontrolatzeko programan, proiektua osatzen duten obra-unitateek eta materialek bete beharko dituzten ezaugarriak eta betekizunak zehaztuko dira, nahitaez bete beharreko araudiarekin eta idazten duenak hartzen dituen irizpideekin bat etorriz, obrak ondo egikaritzen direla bermatzeko asmoz. Kalitatea kontrolatzeko programa idaztean, honako hauek zehaztuko dira: materialak hartzeko irizpideak, kalitate-zigiluek edo -markek abalatzten dituzten ala ez kontuan harturik; egin beharreko saiakuntzak, analisiak eta probak; loteen eta programaren garapena taxutzen duten parametro guztien zehaztapena, egikaritze-proiektuan zehaztutako jarraibideen arabera.

Kalitatea kontrolatzeko programak haren balioespen ekonomikoa jasoko du eta aurreikusitako saiakuntza bakoitzaren kostua zehaztuko du.

Kalitatea kontrolatzeko programa agiri hauek osatuko dute:

1. Memoria. Honako hau egiaztatuko du gutxienez: materialak hartzeko irizpideak, kalitate-zigiluek edo -markek abalatzten dituzten ala ez kontuan harturik; probatzen diren obra-unitateak eta materialak onartzeko eta baztertzeko irizpideak; eta loteen eta kalitatea kontrolatzeko programaren garapena taxutzen duten parametro guztien zehaztapena.
2. Saiakuntzak, analisiak eta probak hartzeko fitxak. Horietan, material bakoitzari eskatu beharreko betekizunak zehaztuko dira, oinarrizko araudia, jarraibideak,



**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

erregelamenduak eta eragiten dion eta nahitaez bete behar den gainerako araudia betetzean eta egikaritze-proiektuaren zehaztapenetan oinarrituak.

3. Egingo diren saiakuntzen balioespen ekonomikoa; saiakuntzak, unitate-kopurua eta haien aleko prezioa deskribatuko dira.

Kalitatea kontrolatzeko programaren aurrekontuak egikaritze materialeko aurrekontuaren % 1 izan beharko du gutxienez.

**HONDAKINEN KUDEAKETARI, ONDORENGO KONTROLARI ETA AMAIERAKO  
KUDEAKETA-TXOSTENARI BURUZKO AZTERLANA**

Proiektuak hondakinen kudeaketari buruzko azterlana hartu beharko du barne, eta obra-amaierako dokumentazioarekin batera amaierako kudeaketa-txostena aurkeztu beharko da.

Azterlanak kudeatu beharreko hondakinen kantitateen eta moten zenbatespena eta horiek kudeatzeko moduaren proposamena bilduko ditu.

Txostenak, berriz, sorturiko hondakinak dagozkien kudeaketa-zentroetan utzi direlako frogagiriak jasoko ditu, baita obra-zuzendaritzak behar bezala egikaritu duelako ziurtagiria ere.





**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

## **LEHIAKETAREN DOKUMENTAZIO TEKNIKOA**

- |  |                               |
|--|-------------------------------|
| <ul style="list-style-type: none"><li>- Jarduketa-eremuari dagokion dokumentazio grafikoa.</li><li>- Aldagela berrien proiektua.</li><li>- Saneamendu-sistema berriari buruzko deskribapena.</li></ul> | Planoan eta erantsitako CDan. |
|--|-------------------------------|